



IGANTZIKO UDALA

Nik, Nagore Madariaga Iriarte, Igantziko Udaleko idazkariak

ZIURTATZEN DUT:

2021eko abenduaren 29an Igantziko Udalak egindako ohiko Osoko Bilkuran, ondoko eta osorik idatzirik dagoen akordioa hartu zuela:

10.- GESERLOCAL, S.L. erakunde instrumental izendatzea eta premiadun bidezko tributu kudeaketarako laguntza eta kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuak kontratatzea.

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFk Sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie.

Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren arabera esleitze akordioen bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzaleei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

1. Sozietatearen kapital guztia publikoa da.
2. NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.
3. Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean.

Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Geserlocal S.L. Igantziko toki entitatearen erakunde instrumental deklaratzeari aipaturiko Foru Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.
- 2.- Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.
- 3.- GESERLOCAL, S.L.en premiadun bidezko tributu kudeaketarako laguntza kontratatzea.
- 4.- GESERLOCAL, S.L.en kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuak kontratatzea.
- 5.- Honako erabakia NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea

Eta horrela jasota ager dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut.

Igantzin, 2022ko urtarrilaren 12an.

IDAZKARIA,

Nagore Madariaga Iriarte